

## **KANALAK**

Bezeroak gurekin harremanetan jartzeko, telefono zenbaki eta email helbide bat duen web orrialde bat dugu. Hortaz, kontsumitzaileak gurekin kontaktatzeko, internet sarbidearen bidez edo telefono batez egin dezakete.

Web orrialdearen bidez, bazkide egin zaitezke, gure makinaren funtzionamenduari buruzko informazioa irakurri, zerbitzuak ikusi, eta horretaz gain, edonork idatzi dezake bere iritzi pertsonala, edo galderaren bat. Horri esker, gure zerbitzuak hobetu ditzakegu eta baita ere bezero berriak erakarri, erabiltzaileek eginiko BiziCleani buruzko komentario edo iritziak irakurri ahal izango baitzituzten.